



Eredu hau bete baino lehen, komeni da arretaz irakurtzea honako jarraibideak:

### 1. JARRAIBIDE OROKORRAK

Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zerga **Gipuzkoan** jasan dutenei (zergapetutako produktuen amaierako kontsumitzaile direnei) baino ez dagokie eredu normalizatu hau erabiltzea okerreko diru-sarren itzulketa eskatzeko.

Ereduaren erabilera hautazkoa da interesdunentzat. Hortaz, aukeran izango dute eskaerak eredu hau erabiliz egitea edo haiek inolako eredurik gabe aurkeztea.

Eredu normalizatua erabiltzeak adierazten du interesdunaren itzulketa eskaerak justifikazioa aurkitzen duela Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2014ko otsailaren 27an emandako sententzian. Izan ere, haren arabera, Batasuneko araudia ezin da zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zergaren alde agertu, ezin esan baitaiteke zerga horrek berariazko xede bat bilatzen duenik.

Eredua internet bidez aurkeztu behar da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez. Ondorio horietarako, nahitaezkoa da aurkezleak sinadura elektronikoa aurreratua izatea, bere identitatea frogatzeko.

### 2. IDENTIFIKAZIO ETA HARREMAN DATUAK

Eskatzaileek (amaierako kontsumitzaileek) beren burua identifikatu behar dute, bai eta adierazi ere zein subjektu pasibok jasanarazi dien itzultzeko eskatzen den zerga.

Eskaera bakoitzak subjektu pasibo bakarra identifika dezake. Eskatzaile batek hainbat subjektu pasiboren hornidurak dituenean, eredu normalizatu bat aurkeztu beharko du itzuli beharreko zerga jasanarazi dion subjektu pasibo bakoitzeko.

Identifikatutako subjektu pasiboak dagoeneko Ogasunean sartuta eduki behar du itzultzeko eskatzen den zerga.

Eredu honen bitartez aurkeztutako eskaerengatik egin beharreko itzulketak banku-transferentziaz sartuko dira eskabideko harreman datuetan adierazten den kontuan (IBAN kodea adierazi behar da).

### 3. ITZULKETA ESKAERA ERAGIN DUTEN HORNIDURAK

Apartatu honetan, interesdunak zerrendatu behar ditu itzultzeko eskatzen den zergaren jasanarazpenak justifikatzen dituzten fakturak, betiere fitxategiak inportatzeko berariazko jarraibideetan eremu honetarako zehatutako formatuari jarraikiz. Faktura egileak bat etorri behar du eskaeran identifikatutako subjektu pasiboarekin.

Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zerga 2012/12/31n indargabetu zenez, ez da itzulketarik izango 2013an egindako hornidurengatik. Orobat, ez da zergarik itzuliko zergaldiak 2010a baino lehenagokoak badira (preskribatuta daude), non eta eskatzaileak ez duen preskripzioaren etena frogatzen. Horrelakoetan, harreman datuen taldean bidezko laukia markatu beharko du.

Fakturen zerrenda aurkezteak ez du eskatzailea salbuesten zerrendaren oinarri diren fakturak aurkezteko obligaziotik. Horrela, bai fakturak eta bai eskatzailearen itzulketarako eskubidea frogatzen duen beste edozein dokumentazio bi modutan aurkez ditzake interesdunak:

a) euskarri fisikoan, organo eskudunaren aurrean, bertan eskaeraren erreferentzia zenbakia adierazita, behin eskaera onartutakoan.

b) euskarri informatikoan, organo eskudunaren aurrean, bertan eskaeraren erreferentzia zenbakia adierazita, behin eskaera onartutakoan.

Itzulketarako eskubidea justifikatzeko araudiaren arabera beharrezkoak diren beharkizunak betetzen dituzten tiketak fakturatzat joko dira eredu honen ondorioetarako.